

Gabonetako Euskal Kostaldeko Azokaren balorazioa



Ficoban, 2017ko abenduaren 8,9 eta 10ean ospatutako Gabonetako Euskal Kostaldeko Azokan Irungo 12 saltokik hartu dute parte, egun bakoitzean lau saltokik.

18.000 pertsona inguru hurbildu zen Azokara, iaz baino %12 gehiago. Hori dela eta, Azkoraren antolatzaileen balorazioa ezin da baikorragoa izan. Ostiralean izan zen egunik jendetsuena, 7000 bisitari baino gehiagorekin.

Bidasoa biziriken eskutik jakin nahi izan dugu zer nolako esperientzia izan duten Irungo 12 saltoki horiek Azokan.

Azokaren egun desberdinetan bertatik bertara bisitatu genituen parte hartzaileak, beren lehendabizikiko inpresioak ezagutu asmoz. Lehen balorazio honetan, erantzuna oso positiboa izan zen. Guztiek adierazi zuten oso pozik zeudela eta parte hartzearen

esperientziak merezi izan diela. Hurrengo egunetan, behin bizitakoa ongi barneratu ondoren, balorazio-inkesta bidali diegu ondorengo esparruak baloratu zitzaizen:

Jasotako arreta
 Jasotako informazioa
 Kanpainaren komunikazioa eta hedapena
 Irungo merkataritzaren Stand-a
 Gabonetako Euskal Kostaldeko Azoka

Halaber, galdetu diegu ea esperientzia errepikatuko zuketan edota beren kabuz parte hartuko zuketan.

| Nota media | |
|--|------|
| Jasotako arreta | 9,5 |
| Informazioa | 9,5 |
| Komunikazioa eta kanpainaren hedapena | 8,5 |
| Irungo merkataritzaren Stand-a | 8,5 |
| Gabonetako Euskal Kostaldeko Azoka | 7,75 |

| | Si | No | Ns/nc |
|---|-----------|-----------|--------------|
| Esperientzia errepikatuko zenuke | 10 | | 2 |
| Zure kabuz parte hartuko zenuke | 3 | 9 | |

Abenduak 8, ostirala

La Bioteka (elikadura ekologikoa): Puntuazio altua eman die arreta eta baita komunikazioaren arloei. Aitzitik, etzaio hainbeste gustatu ez Irungo Stans-a ezta Azoka bera ere. Ez dauka oso argi bere kaxa parte hartuko zukeen.

Lucca joyería (bitxitegia): Lucca bitxitegiko Anderrentzat, esperientzia bikaina izan da. Berririo errepikatuko luke zalantzarik gabe, eta baita bere kaxa ere. “Stand-a izugarri gustatu zait, baina nire ustetan argia falta zen. Nire txokoa argiztatu gabe gelditu zen eta produktua ez zen ongi ikusten”.

Arbelight (Argiztapenerako denda): saltoki honetzako Azoka erakusleihoa baino ez da izan. Jasotako arreta ezinhobeia izan dela uste duen arren, komunikazio kanpainari indarra falta izan zaiola adierazi du eta 7 bat jarri dio. Azoka eta Stand-ari dagokionez, 6 bat eman die, onargarria izan delako besterik gabe. Ez daki berriz ere itzuliko litzatekeen erakusle bezala udaletxearekin, eta argi dauka bere kabuz ez zuela inoiz parte hartuko horrelako Azoka batean. Oskarrek esan duenez, “Azoka ondo dagoen arren, nire saltokia ez da egokia mota honetako jardunaldientzat, baina onartzen dut ezagutarazteko modu bezala ez dela hain gaizki egon”.

Aurea (emakume-arropa dena): Nota oso ona jarri dio esperientzia guztiari. Asko gustatu zaio Azoka eta hamarrekoa eman dio. Borobila izan da dena salbuespen batekin: Arropa dendentzako erreserbatua zegoen txokoa, aldagela bazegoen ere, ispilua falta zen, ezinbesteko lan tresna bere jarduerarako. Esperientzia guztiz errepikagarria dela dio, baina bere kaxa inolaz ere ezingo litzatekeela hor egon azpimarrtu du, “ezinezkoa”.



Abenduak 9, larunbata

Sugar repostería Creativa (gozotegia): Noemirentzako sekulako bizipena izan da. Zoratzen dago halako aukera eman izanaz. Asko saldu zuen, eta gainera ezagutzera eman zuen bere denda. Dударik gabe, datorren urtean errepikatuko luke, baita bere baliabideekin ere.

R-Nove (estetika-zentroa): R-Nove estetika-zentroak ere bikain jartzen dio arretari eta komunikazio kanpainari. Stand-a eta Azokari ere nota altua jartzen badie ere, zalantza du itzuliko litzatekeen ala ez erabakitzeko. Etzaio burutik pasatzen bere kaxa parte hartzeko aukera.

Bazar Uranzu (opariak):

Bikain batekin baloratzen dute jasotako arreta eta informazioa. Komunikazio kanpaina ere egokia izan dela adierazi dute. Azoka berriz ez zuten izan oso gustuko eta 6 bat jarri diote nota gisa. Stand-a dena den polita zela azpimarratu dute. Eztakite berriz ere parte hartuko luketen, baina bere kaxa sekula ez, Azokak ezpaititu bere itxaropenak asetu. Hori bai, bizipen bezala, gustatu zaio eta uste du saltoki guztiek parte hartu beharko luketela bizitzan behin gutxienez. Proposatzen dute Azokan parte hartzeko aukera merkeagoa izatea, merkatarien parte hartzea handiagoa izateko. Izan ere, jendeak adierazi omen zuen oso postu gutxi zeudela Azokan.



Zebra allboarders (arropa-denda): Nota altuak antolamenduari dagokion guztian. Gabonetako Euskal Kostalderen azokari jarri diote nota bajuagoa. “Oso pozik gaude antolakuntza eta kudeaketarekin, baina uste dugu ez dela gure publikorengana iristeko tokirik egokiena. Inpresioa eman zigun ez genuela gure produktua eroz zezakeen bezerorik bertan. Hala eta guztiz ere, baliagarria izan da publizitatea eta erakusleiho bezala. Udaletxeko Stand-ean balitz errepikatuko lukete esperientzia, baina lehen aipatutako arrazoiak direla medio, ez lukete bere kaxa parte hartuko.

Abenduak 11, igandea

El Baul de las ideas (eskulanak): Josunek guztiari ematen dio hamarreko nota. Azoka ere bikaina iruditu zitzaion, baina Stand-ari dagokionez, uste du bisitariak etzuela ikusi Irungo merkataritzaren ordezkariak zirela. Espazioa oso nahaspilatuta agertzen den, euren artean banaketa gutxi zegoelako. Hala ere, errepikatuko luke, ez ordea bere kabuz.

Vinos Arambarri (elikadura): Oso pozik daude beren parte hartzearekin eta zalantzarik gabe errepikatuko lukete esperientzia, Udaletxearekin eta baita bere kaxa ere. Hala eta guztiz ere, puntuatzeko garaian beste merkatariaik baino apalagoa da. Eta nahiz eta balorazioa ona den arren, nahiago du azpimarratu gauza asko hobetzeke daudela. Besteak beste, proposatzen du, “helburua bada Azokan parte hartzen duten saltokiak ezagutzera ematea bada, sarreran prezioa aztertu beharko litzateke. Adibidez, postuetan gastua eginez gero, dirua itzuli beharko litzateke. Modu horretan, eragingo genuke bistariak Stand-etan erostea ziurtasun osoz, eta sahiestuko litzateke jendea Azokara arratsalde pasa baino ez joatea”

Brönte Liburudenda: Brönte-ko liburu saltzaileak oso positiboki baloratzen du Euskal Kostaldeko azokan parte hartzea, 10 bat jarri baitio. Azokari berriz, 7ko nota jartzen dio. Yleniak errepikatuko luke esperientzia baina ez bere baliabideekin. Erakusleihoa ezinhobea iruditzen zaion arren, onartzen du ez dela asko saltzen.

Hirubelar (loradenda):

Hirubelarrek arreta, jasotzeko informazioa eta kanpainaren

komunikazioari 10eko nota jartzen dio. Aitzitik, Azokari eta Stand-ari 6 bat jartzen dio. Izan ere, kexatu da, Stand-a ez zela egokitzen beraien produktura eta hurrengo urte batzuetarako saltoki bakoitzaren espazioa pertsonalizatuagoa izatea proposatzen du,



bakoitzaren beharretara egokitua. Berak adibidez, altzariak bota zituen faltan. Parte hartuko luke berriro. Ez ordea, bere kabuz. Erdietsitako ingresoak ez lukete konpentsatuko Ficobako Azokan presente egotearen gastuak.